



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/30

Autopista Errekaldetik Kanpora plataformak erakundeen inplikazioa eskatu dau autopistea eraisteko eta Errekaldeko saihebidia eregiteko

Errekaldeko auzokideen ordezkariak, “oinarrizko beharrak beteko dituen inbertsinoei” lehenasuna emon beharra eroan dabe gaur goizean Batzar Nagusietako Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordera. Euren eretxiz, lehenasun horreen artean Errekaldeko Bide-zubia eraistea eta horren ostean saihebidia eregitea dagoz.

Kolektiboko kideek adierazo dabe ez dabela ulertzen “zein errazoi edo interes egon daiteken Supersur izenekoaren luzapenari lehenasuna emoteko”. Euren eretxiz, azpiegitura horrek “galerak sortzen ditu”, “gizarte arloko hainbat kolektiboren salaketak” jaso ditu eta, ganera, “ustez babestuta egoan Bilboko gunen natural bat apurtzen dau”.

Horren ordez, plataformak Errekaldeko bidezubiaren eregitea eta A8 autopistea eraistea proponiduten dau, proposamen hori, “Errekalden bizi garan 40.000 personaren bizitza kalidadean eragina daukan eskari soziala” dala esanez. Bertaratu direnek, ganera, barrero esan dabe “azpiegitura hori, une honetan bertatik ibiltan dan ibilgailu kopuru berberak erabiliko dauela”.

“Gure eretxiz, Foru Aldundiko gobernu taldeak herritarren interesak defendidu beharko leukez, eta ez interes ekonomikoak”, adierazo dabe. Horretarako, ordezkariak, aurrekontuetan inplikazio “apur bat” egotea eskatu dabe, “auzoko jentek ikusi daian autopista eraistearen kontua mobiduten ari dala”.

Taldeetako ordezkariak plataformaren eskariaren alde agertu dira euren berbaldietan. Euzko Abertzaleak taldeak, Irene Edesa batzordekideak “borondatea eta konpromisoa” dagola esan deutse bertaratuei, baina hori aurrera eroan ahal izateko “hainbat izapide bete behar dirala”. Halanda be, Lurraldeko Sektore Planaren (LSP-PTS) eztabaidan, eskari horreek “oso pisu handia” daukiela adierazo dau.

Modu berean, oposizio taldeetatik, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, eztabaida horren barruan bide-zubiak sortzen dauen eraginean zentretako eskatu deutso plataformari, “eta ez beste azpiegitura batzuek kontrajarritako zeozer moduan”. Eduardo Andrés popularraren berbetan, Errekaldeko bide-zubia eraistea “lehenasunezkoa” da, baina hori ez dago beste azpiegitura batzuk egiteagaz “kontrajarrita”.

Nuria Atienza Podemoseko batzordekideak, barriz, orain 44 urteko “inposizio frankistea” dala gogoratuaz dau, eta autopistaren eraisketa “arindu” eta “proposamen ekonomikoa” aurkeztu behar dala azpimarratu dau.

GARABIDE ELKARTEA

Eguneko gai zerrendako bigarren puntuan, Garabide Elkarteko ordezkari bik, alkarteak 2005etik mundu osoko hizkuntza gitxituak bizibarritzeko aurrera daroan jarduerak aurkeztu dabe Batzarren aurrean. Irabazi asmo bako erakunde horrek, “hizkuntza arloko lankidetzak” daroa aurrera mundu osoko lurraldeakaz –Hego Ameriketara, batez be-
euskerak ezagutu dauen berreskuratzeko esperientzia euren partekatuz.

Hori dala eta, azaldu dabenez, alkarteak lankidetzarako egitasmoak daroaz aurrera garapen bidean dagozan herrialdeetan hizkuntza gitxituak daukiezan komunitateetako eragileakaz. Horrez gain, 2011n, Bizibarritzean Aditua dan “Adituko” Ikastaroa jarri eban martxan. Aurton bere 4. edizioa beteten dau.

Garabideren beharra ondo hartu dabe Batzarretako taldeek. Talde horreek, bertaratutako ordezkariak hainbat zalantza bideratzeaz aparte, euren esker ona adierazo dabe, kultur ondarea berreskuratzeko alkarteak egiten dauen behararengaitik.

PRESIDENTEAREN AUKERAKETEA

Saioaren haseran, Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordearen presidente barria aukeratu da, María Presak kargua itzi eta gero. Bozkau ostean, Ainara Aretxabaleta Euzko Abertzaleak taldeko batzordekidea izan da aukeratua, aldeko hamar botogaz.

NOTA DE PRENSA

30/11/18

La plataforma Autopista Errekaldetik Kanpora reclama implicación institucional para el derribo de la autopista y la construcción de la variante de Rekalde

Representantes del colectivo vecinal de Rekalde han trasladado esta mañana a la Comisión de Peticiones y Relaciones con la ciudadanía de las Juntas Generales, la necesidad de priorizar “aquellas inversiones que cubren las necesidades más básicas”, como es en su opinión, el derribo del viaducto de Rekalde y la posterior construcción de la variante.

Los integrantes del colectivo han manifestado no entender “las razones o intereses que puede haber para priorizar la ampliación de la Supersur”. Una infraestructura, a su juicio, “deficitaria” que acumula “denuncias de diferentes colectivos sociales” y que, además, “rompe un espacio natural de Bilbao que se creía que estaba protegido”.

Por el contrario, la plataforma defiende la construcción de la variante de Rekalde y derribo de la autopista A8, argumentando que ésta se trata de “una demanda social que repercute en la calidad de vida de las 40.000 personas que vivimos en Rekalde”. Los comparecientes, además, se han reafirmado en la idea de que “esta infraestructura será utilizada por la misma cantidad de vehículos que circulan actualmente”.

“Pensamos que el equipo de gobierno de la Diputación Foral debería defender los intereses de la ciudadanía y no los intereses económicos” han manifestado. Para ello, los representantes han solicitado “algo” de implicación presupuestaria, “para que la gente del barrio vea que se está moviendo el derribo de la autopista”.

Los y las representantes de todos los grupos han respaldado, en sus intervenciones, la demanda de la plataforma. Desde el grupo Nacionalistas Vascos, la apoderada Irene Edesa ha trasladado a los comparecientes que existe “voluntad y compromiso” pero que, para se lleve a cabo, “hay que hacer una serie de trámites”. No obstante ha apuntado que en el debate del Planeamiento Territorial Sectorial (PTS) estas peticiones tienen “un peso muy importante”.

De igual manera, desde los grupos de la oposición, el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha instado a la plataforma a, dentro de este debate, centrarse en el impacto que genera el viaducto, “y no en una contraposición con otras infraestructuras”. Para el popular, Eduardo Andrés el derribo del viaducto de Rekalde es “prioritario”, aunque “compatible” con realizar otras infraestructuras.

La apoderada de Podemos, Nuria Atienza, sin embargo, ha recordado que ésta se trata de una “imposición franquista” de hace 44 años y ha hecho hincapié en la necesidad de “acelerar” el derribo de la autopista y de que se presente una “propuesta económica”. En la misma línea desde EH Bildu, el apoderado Zigor Isuskiza ha reclamado un debate sobre la priorización de infraestructuras.

GARABIDE ELKARTEA

En su segundo punto del orden del día, dos representantes de Garabide Elkartea han presentado a la Cámara la labor que llevan desarrollando desde 2005 en torno a la revitalización de idiomas minoritarios de todo el mundo. Esta institución no gubernamental sin ánimo de lucro desarrolla una “colaboración lingüística” con regiones de todo el mundo – principalmente de Sudamérica – haciéndoles partícipes de la experiencia de recuperación que ha experimentado el euskera.

Para ello, como han explicado, la asociación lleva a cabo proyectos de cooperación con agentes de las comunidades de lengua minorizada en los países en vías de desarrollo. Además, en 2011 pusieron en marcha el Curso Experto en Revitalización “Adituko”, que este año cumple su 4ª edición.

La labor de Garabide ha sido bien acogida por todos los grupos junteros, quienes, además de trasladar a los comparecientes algunas dudas, han mostrado su agradecimiento por este trabajo de recuperación del patrimonio cultural.

ELECCIÓN DE PRESIDENTA

La sesión ha dado comienzo con la elección de la nueva presidencia de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, tras la marcha de María Presa. Tras someterlo a votación, la apoderada del grupo Nacionalistas Vascos, Ainara Aretxabaleta ha sido elegida con diez votos favorables.